

## Andima'ren azken-naia

*Zeruko Argia*, 247. zk., 1967-11-26: 11.

Ibiñagabeitia'tar Andima il zaigu.

Elantxobe? Ea'ko seme argi au ez zan gurasoz eta jaiotzez izan zan bi erri bizkaitar oietakoa bakarrik izan; Euskalerrri osoko semea izan genduan, bai biotzez eta baita izkuntzez ere. Gure idazleetatik goienetakoa, Andima'k euskera osoa erabiltzen zuan, gure erri osoko euskera, euskera aberatsa, jakinduna.

Lenago ere biotzetik makal ibillia ba zan ere, Caracas'eko lur-ikara ezkerro izan zuan erori-aldi larriena. Asko argaldu zan, gizarajoa; arpegia marguldu zitzaion, eta begiak (bere begi argi ta bizi aiek) pixka bat larritu zitzaizkion. Ala ere, bere gorputza nekatua, ia agortua, ba zegoan ere, bizirik eta gai ta zuti-zutik gorde zuan bere gogo indartsua, ta euskeraren serbitsuan iraun asi zion bere azkena eldu zitzaion arte.

Azkenaldi onetan ia igandero atera oi giñan alkarrekin. Caracas'eko mendi inguruak ibiltzen genituan geienetan. Orlegi billa, noski. Ta euskera izaten genduan gai. Gure ateraldi oietako batean, eibartar jator dan Toribio Etxebarria'ri grabatu-berria nion izketaldia entzun arazi nion. Lengo igandean zan, urrillak 29. Grabatzeko tramakulua (berak deitzen zion bezela) berebillaren gañean jarri ta inguruetakoa mendietara begira gaudela entzun genituan ordubeteko don Toribio'ren erantzunak. Bukatu genduan, eguzkia izkututzen asia zan, eta Barutaima-goiko mendi inguru aiek prexkatzen asi ziran beruntz etorri giñan berriz.

Etxerakoan esan nion: "Aizu, Andima, tramankulu au zure etxera igo ta izketalditxo bat grabatuko dizut". "Gizona-erantzun ziran guk alkar ondo dakigu, ta ez dizut ezer berririk emango". Bañan nik nereari eutsi nion, eta, alaxe, grabadora igo ta galdererantzun batzuek grabatu nizkion.

Igande gaba zan.

Ostegun goiz-goizean deitu ziran bere illoba maitea zuan Lore'k berri mingarria emateko; azillaren 2'an, illen eguna; goizeko lauretan, lau bat orduko oñazeak jo ta gero, il zitzaigun.

Andima euskerarentzako bizi zan; euskera izan zuan bere maitale kuttun eta bakarra; euskerari eskeñi zion erbesteratua ta mindua, zeukan soña, iñola ere erbesteratu al izan ez zioten bere gogo argi ta pizkor ura. Nik jaso nizkion bere itz oiek bere erriari, berak ainbeste maite zuan erriari, zor dizkiot.

Ara ba, emen batzuek:

"Euskerari laguntzeko: zer egin genezake gaur bear aundiena bezela?".

"Euskera aurtxoan artean zabaldu –erantzun ziran– eta orretarako ikastolak nun-nai sortu batez ere oraindik euskera bizi dan errietan bear-bearrezkoak ditugu ikastolak. Nola sortu? Ez dakit Eliza'k daukan konkordatoak zer eskubide ematen dizkion Eliza'ri. Emen, Venezuela'n, beintzat, eliza bakoitzak bere ikastola du, ta nik uste Euskalerrria'n eliza

bakoitzak bere ikastola bear lukela; bañan euskera irakasteko!; erderaz irakasteko lar eta geiegi ere ba ditugu eliz-gizon eta eliz-andreen esku artean!".

"Zuk ba dakizu ondo aski –esan nion– euskera batzen ez ba du, gure izkuntzak etorri motxa izango duala; zer diozu euskeraren batasunaz?".

"Ez dago esan bearrik, batasun ori derrigorrekoa degula. Izelgiak gorde litezke, noski; erri bakoitzak berea; bañan eskoletan euskera-bakarra bear degu, beste erria egin duten bezela: Alemania izelgiz josia dago; ala ere, aleman-bakarra da aleman guziak darabiltena euren artu-eman guzietan. Italia'n beste ainbeste gertatu da; izelgiz beteta dago, ala ere italiano-bakarra da euren artu-emanetan darabiltena; ta euskeraz ere orretara iritxi bear degu. Ez da oraindik luzaro katalanak orixe bera iritxi zutela; katalanak ere izelgi asko ditu, ala ere bere idazle batek batasuna lortu zuan, eta katalan bakarra dute orain katalan guzien artu-eman, liburu ta ikastola gaietarako; ta guk ere beste oinbeste egin bear degu, euskera oso eta bakar bat erabili; izelgiak bizi ditezela nai baldin ba dute erri bakoitzean, oien aurka ez degu ezer egingo, bañan izkuntza ofizialak beintzat, euksera-bakarra izan bear du".

"Zer izango litzuke onena –galdetu nion berriz– euskera batzeko?".

"Lan au egiteko izelgi bat oñarriztat artu bear genuke. Izelgi ori, geienak diotenez, gipuzkera izan bear luke, gipuzkera dagoalako izelgi guzien erdian, eta izelgi orren inguruan bildu ditezke beste izelgietako itzak, esakerak eta arizkerak eta konbeni diran gauza guziak. Ori nai zuan Azkue'k. Eta ori egin zuan Aita Olabide'k, bere Biblia idatzi zuanean, izelgi guzietako itzak gipuzkera oñarriztat artu-ta, bildu ta erabili, euskera bakar bat osatzeko; ta aren jarraitzalle izan geranok ere beste ainbeste egin degu.

"Ba dakizu –galdetu nion– Eliza'k orain aukera aundia duea euskerari laguntzeko; ta ari da, era askotan, euskerari laguntzen; ez al dezu uste batasun lan onetan berak oñarri-lan ederra egin lezakela gure otoitz guziak eta elizkigun guziak euskera batean jarriko babilitu?".

"Oraintxe, ain zuzen ere, jaso nuen Lazkao"ko beneditarrak argitaratzen duten aldizkaria: "Jaunaren deia", ta aldizkari orretan dabilta euskal-liturjiaren batasunaren inguruan; orain, gañera, agindu zorrotz bat eman dute Erroma'tik, esanaz euskal bakarra bear dala mezetarako, ta meza guzietan eta erri guzietan erabiltzeko. Ta orretan sailtzen ari dira, ta uste det laixter iritxiko dutela. Orretarako apaizak saiatu bear dira, bañan egitaz saiatu ordea!".

"Euskeraren batasunerako beste bide nagusi bat Euskaltzaindia da; zer derizkiozu Euskaltzaindiak egin al litzaken lanetzaz?".

"Bai, Euskaltzaindia, ain zuzen ere, euskera zaintzeko sortu zan. Ta bere alegiñak egin dituala ezin liteke ukatu. Ala ere, ez ditu oraindik alegin guziak egin. Bide zabala dauka euskeraren alde egiteko. Batasuna, gañera, Euskaltzaindia'ren bitartez ongien lortu liteke. Aien esku-artean baitaude besteok ez dauzkagun gauz asko. Orretarako, ez bertsolari sariketak bakarrik, baita beste sariketak eta euskal-liburuak ere gertu bear litzuzke Euskaltzaindiak. Orain, indar aundia artzen ari dira aur-ikastolak gure errietan; aur ikastola oietarako, liburu premiña aundia daukagu, ta premiña ori betetzeko, nolabait Euskaltzaindia'k sariketak gertu bear litzuzke, orretarako bear diran diru guziak dauden tokietatik bilduaz. Nik uste gaurko Euskaltzaindia'ren eginbear aundienak oiek dirala: euskeraren batasuna, ta texto-liburuak gertutzea".

Ara bada emen, Ibiñagabeitia'tar Andima'ri jaso nizkion neri esandako azkeneko itzak. Bere azken-naia bezela jaso izan nizkion. Eta berak bere erriari, ainbeste maite zuan bere erriari, esan nai izan lizkioken bezela esaten dizkiot "Zeruko Argia"ren bidez.

Andima, anai maitea, gero arte.